# ZIZURKIL

## BIODIBERTSITATEA

ESKOLAKO AGENDA 21



2011 /2012 IKASTURTEA



2011/2012 IKASTURTEA
ESKOLAKO AGENDA 21
BIODIBERTSITATEA

# Aurkezpena

Kaixo, Zizurkileko ikasleak gara eta aurten **Eskolako Agenda 21** proiektuaren barruan egin ditugun lanak aurkeztera etorri gara.



# Gaia

Urtero gai bat aukeratzen dugu eta aurtengo gaia **BIODIBERTSITATEA** da



# Nortzuk hartu dugu parte?

Zizurkilen 216 ikaslek hartu dugu parte proiektu honetan:

Baina ikasleak protagonista nagusiak bagara ere, ez ditugu ahaztu behar irakasle, eskolako beste langile eta gurasoak.



# EA21 programan 3 ardatz lantzen dira

- Eskolako kudeaketaren hobekuntza.
- Curriculumaren azterketa.
- Herri partaidetza



Udal Batzorde honetara herri mailan egindako lanaren emaitzak ekarri ditugu:

- Hausnarketaren ondorioak
- Gaiarekiko hartzen ditugun konpromisoak
- Egiten dizkizuegun proposamenak



# Helburua



Helburua, denon artean herriko eta inguruko biodibertsitatearen egoera hobetzea da.



# Bururiko lanak



**LH-ko 1 eta 2. mailakoek:**
Herriko parkeetara atera gara eta gure ingurunea ezagutu dugu.



# Bururiko lanak



## LH-ko 3. eta 4. mailakoek:

Habitat desberdinak ezagutu eta hauen egoera aztertu dugu.

Natura irudi polit bat baino gehiago da eta eskaintzen dizkigun ondasun eta zerbitzuak aztertu ditugu.



# Bururiko lanak

LH-ko 5. eta 6. Mailakoek:

Aniztasunaren garrantzia aztertu dugu herritarrei galdetuz.






# Ondorioak

- Gure inguruan berdegune batzuk badaude baina batzuetan zaborrez beterik aurkitu ditugu
- Inguruko mendietan pinudi asko dago eta beste motatako zuhaitzak egotea ondo legoke.



# Ondorioak

- Erreka inguruak ere ez ditugu oso garbi aurkitu. Desagueak eta plastikozko poltsa asko daude

- Batzuetan landareak mozten eta intsektuak harrapatzen ibiltzen gara.



# Konpromisoak

Haue dira biodibertsitatea zaintzeko hartzen ditugun konpromisoak:

- Landareak zuhaitzak eta loreak **errespetatuko** ditugu
- Mendian dauden **bideetatik** joango gara landare eta loreak zapaldu eta hartu gabe
- Zaborrak beti behar den tokira botako ditugu. Horretarako mendira **zabor poltsa** eramango dugu



# Proposamenak

Udal ordezkariei ondorengo proposamenak egiten dizkizuegu:

2011/2012 IKASTURTEA
ESKOLAKO AGENDA 21
BIODIBERTSITATEA

- prefabrikatuak zeuden tokian pinuak ez diren beste zuhaitzak landatzea
- Ibaia garbitzeko auzolana antolatu eta garbi mantentzea gogorarazteko txartelak jartzea
- Errekako zuhaitzak ez moztea



# Eskerrak

Lan hau egiten lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu



# Eskerrak

Zuen arreta ere eskertu nahi dizuegu.
Ziur gaude egindako ekarpenak kontuan hartuko dituzuela eta egiten dizkizuegun proposamenei erantzungo diguzuela.



2011/2012 IKASTURTEA
ESKOLAKO AGENDA 21
BIODIBERTSITATEA

Denon artean Zizurkil justuagoa eta jasangarriagoa lortuko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena !!!

